

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasun Departamentuak Iruñeako eta Iruñerriko auzokideei gogorarazi nahi die haien osasun zentroak zabalik daudela Sanferminetan

Ermitagañako, Arrotxapeako, Burlatako eta Doctor San Martín osasun zentroetako ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak zentzuz erabiltzeko eskatu du

Martes, 12 de julio de 2011

Osasun Departamentuak Iruñeako eta Iruñerriko auzokide guztiei gogorarazi nahi die haien auzo eta herrietako osasun zentroek ohiko zerbitzua eskaintzen dutela 8:00etatik 15:00etara, eta lehenengo zentro horietara jo behar dutela haien osasun arazoak artatzeko.

Hala ere, hiriburuko eta ondoko herrietako (Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Atarrabia eta Zizur Nagusia) lagunentzako ohiko osasun zentroek eskaintzen duten arreta Ermitagaña, Arrotxapea eta Burlatako osasun zentroetako ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuek osatuko dute jaietan arratsaldeetan, baita Dr. San Martín zentroko anbulatorioak ere (helduentzat uztailaren 15eko 8:00ak arte egongo da zabalik, etenik egin gabe).